

eztau norbere etxea eta erria aitzuterik eskatzen eta gitxiago agintzen. Euskalerrria gogoan eta biotzean ondo sartuta eroango dau beti. Urriñetako errien ona ondo gogoan eroianari bere erritarren onaz arduratu barik biziten ez eutsan gogoak agintzen inõndik inõra. Loiolan Iruñeko zauria osatzen egon zaneko aldakuntzak eta santuen bidea artzeak erabagiak eztaoe inõrganako maitasunean otzago izatera, eta bere erritarren alderako gitxiago. Ezta orain lengoa, Iruñera gudari joan zanekoa. Orduan bere, ez zan ara joan napartarren aurka ez alde egitera. Gudari guztien alabearrak eroan eban Iruñera. Gudarien legea zan orduan agintarien aginduak bete eta gudako arriskueta burrukalaria adoretu agertzea, agintarien aurrean leial agertuz gerorako etorkizun ohea irabazteko. Orduan ez erabillen Inãziok beste asmorik ez amesik.

Gero, barriz, gaztetako ames zoro guztiai betiko agur egin deutesanean, argi barritan ikusten dau bere bizia eta biziaren elburua. Len, munduan andi izan naiak jota ebillen; bere burua, bere etxea eta Loiolatarren izena alik ospetsuen egitea zan bere amesa. Orain bestelako amesak darabiltz, bestelako gauzetan dauka bere poza. Ezer emotekotan bestelako izena emon gura deutso Loiolari eta berari odola emon eutsan lurralde guztiari. Naiko ondo jaso dau gure antzerkigille batek, Zubikarai Ondarrutarrak, idatzita daukan antzerki baten, Inãzioren bizitzan egin zan goitiberako asmo-aldakuntza au.

Au esanaz, eztoigu geurerik ezer asmatu. Inãziok berak autortu eutsan bere etxeko bati Erromatik bialdu eutsan karta baten: «orain artean baiño bestelako ospea emon bearra daukagu geure etxeari».

Bere erriari deutsan maitasuna

Baiña bere erritarrai 1541n Erromatik bialdu eutsen karta baten argi baiño argiago dago, bere etxeko eta Azpeitiarrai ez ere, bere lurralde guztiari eutsen maitasuna. Maitasun au itzik beroenez autortu deutse, eta Jainkoa bera ipinten dau maitasun orren lekuko: «Jainkoak badaki, diñotse karta orren asieran. Jainkoak badaki zenbat bider eta zeinbateraiñoko gogo andi beroa ipiñi deustan berak, neure alegintxoan al dodan guztia egin dagidan lurralde orretako guztiai, andrazko eta gizonezkoai pozatsegiña eta arimarako laguntza eroateko».

Bere erriaren alde edozer egiteko zordun ikusten dau bere burua. Zergaitik? «Jainko gure Jaunak lurralde orretan emon eustalako, bere oizko errukiaz, neure lenengo izatea eta jaiotza izateko mesedea, nik merezi bakoa eta berari ezin eskertuko deutsadana». Olango autorkuntza irakurrita, ez dau inõk esango Inãzio bere erriarentzat ardura barik bizi zanik. Norentzat egin dau autormen ori baiño argiago eta beroagorik, eta Jainkoaren aurrean egin bere, euskalerrriaren alde baiño? Paristik azkenengo aldikoz Azpeitiara joan zanean zerbait egin ei ebala diño, eta damututa lez dago geiago ez egiña. Eta Euskalerrriari, beste gauza guztien ganetik egiazko